



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUKO TXANTXARI LUDOTEKA LOGOTIPO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa honen bidez Altsasuko Txantxari Udal Ludotekaren logotipoa aukeratuko da

GAIA

Altsasuko Txantxari Ludoteka

NORI ZUZENDUA

Altsasuko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleak

FORMATUA

A4 bertikala (ahal bada kartulina). Bakoitzak nahi dituen materialak erabil ditzake.

TESTUA

Kartelean testu hau agertu behar da ezinbestean:
TXANTXARI LUDOTEKA

EPEA

Ludotekan aurkeztuko dira lanak 2023ko maiatzaren 2tik 25 arte

AURKEZPENA

Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da ondoko datuak zehaztuz: izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eskolatua dagoen ikastetxea eta ikasmila.

SARIA

Marrazketako materiala eta 60€ eskudirutan.

JABETZA

Logotipo saritua Txantxari Udal Ludoteka ordezkaturiko duena izango da. Logotipo sarituaren jabetza Altsasuko Udalarena izango da. Horregatik, Udalak saritutako logotipoari nahi adina kopia litografiko edo beste motatakoak egiteko eskubidea hartzen du, nahi duen erabilerarako. Eta beraz, egileek ezin izango dute erreklamaziorik egin. Sariaren bidez, Altsasuko Udala saritutako logotipoa jabetzen da, eta hari dagozkion izaera ekonomikoari buruzko jabetza intelektualeko eskubideez ere, hau da, kopia, banaketa, jakinarazpen publikoa eta itxuraldaketa, betiere Jabetza intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan, halako maneran non Udalak eskubidea izango baitu lana edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzko batean aurkezteko, bai eta merkataritza helburuekin lana banatu edo jendaurrean jartzeko ere. Espresuki barne hartzen ditu, baita ere, lanak hala *on-line* eran nola Internet motako sare digital elkarreragileen bidez eman eta igortzea.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia alkateak edo berak izendatutako zinegotziak eta arte plastiko eta ikusmen-arteetan adituak diren pertsonak osatuko dute, Udalak izendatuak.